BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1253

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 6koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Fundación Internacional de Solidaridad Compañía de María - FISC erakundeak 2010eko GLSFren konturako proiektuei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Disminución de la morbimortalidad en la Isla de Idwji. República Democrática del Congo» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzen duena.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko apirilaren 14ko Aginduaren bidez, Fundación Internacional de Solidaridad Compañia de María - FISC erakundeari 400.758 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Disminución de la morbimortalidad en la Isla de Idwji. República Democrática del Congo» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2014ko martxoaren 5ean bidalitako komunikazioan, diru-laguntzari zati batean uko-egiteko eskaera aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatzi-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezaketen gorabeherak jakinarazi beharko dizkio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Fundación Internacional de Solidaridad Compañia de María - FISC erakundeari 2010 GLSFren konturako proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Disminución de la morbimortalidad en la Isla de Idwji. República Democrática del Congo» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, erakundeak itzuli egin beharko du justifikatuta ez dagoen kopurua, hau da, 45.567,61 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta handik hilabeteko epean. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ezer ebatzi ez bada, pentsatu beharko da errekurtsoa ez dela onartu, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 6a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.